


ANAITASUNA

270. zenb.

1974.eko otsailaren 28koa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Eliza bat Herri batentzat



Bi erakunde* bakarrik dira Euskal Herrian —nik dakidanez— Euskal Herri osoako erakunde ofizialtzat hartuak, eta Euskal Herri osoarentzat eratuak: Euskaltzaindia eta Liturgi Batzordea. Batak bi Estatuengandik du bere «ofizialtasuna»; besteak, Elizaren aldetik.

Beren eginkizuna oso mugatua badute ere, biek dute Euskal Herri «osoari» dagokion zerbaiten ardura: Euskaltzaindiak Herriaren euskararena, Liturgi Batzordeak Elizaren euskal Liturgiarena.

Beren ofizialtasuna eta guzti, astinduta* dabilza askenaldi honetan bi erakundeok, bizilekurik eta oinharririk ez balute bezala; eta hala da zoritxarrez: Euskaltzaindia dugu ofizialtasunik gabeko Herri baten herri erakunde ofiziala; Liturgi Batzordea dugu ofizialtasunik gabeko Eliza baten eliz erakunde ofiziala. Ba dirudi, biak dabilzala bizileku seguru baten bila: Herri ofizial baten bila... Eliza ofizial baten bila...

EUSKALTZAINDIA ALA LITURGI BATZORDEA?

Gure artean ba da bat baino gehiagorik, Euskaltzaindia eta Liturgi Batzordea burruka zelai berebean elkarren kontra jarri nahi dituenik: «Honako hau dio Euskaltzaindiak, horrako hori dio Liturgi Batzordeak»; «honek Euskaltzaindiaren esanak egiten ditu eta ez Liturgi Batzordearenak, horrek Liturgi Batzordearenak betetzen ditu eta ez Euskaltzaindiarenak...» Gure euskal eta kristau kontzientziak etenik daude. Nola bateratuko?

Euskaltzaindia euskal Diputazioek sorturiko erakundea dugu, eta bere asmo nagusienetako bat euskara batzea izan du lehen lehenik. Liturgi Batzordea euskal Elizbarrutiek eratuta dago, eta haren eginkizun nagusia Euskal Herri osorako euskarazko Liturgia batua ematea da: horretarako sortu zen, Erromak eskaturik edo «agindurik». Liturgi Batzordeak ez du euskara batzeko ez agindurik ez aginterik hartu, euskara batuan Liturgia emateko baizik.

Euskara batua ez da gauza egina, ez eta izango ere. Hizkuntzaren batasuna ez da, behin betirako egiten den zerbait, behin eta beti eginez doan zerbait baizik. Euskararen batasun dinamika hori, Euskaltzaindiak urratzen duen bidetik doa: horixe baitu honek bere eginkizun nagusienetakoa. Beraz, ez gaur bakarrik, beti izango dugu euskara batu beharra, eta, horretarako, Euskaltzaindiaren bidetik joan beharra. Bide hau ez da zeruetako galaxietatik pasatzen, herritik baizik: herriaren gidari da Euskaltzaindia —eta herria gara euskaldun guztiok—.

Liturgiako euskararen batasuna ere ez da behin betirako egina: beraz, euskal Liturgi Batzordeak ere beti izango du lanik. Lan handia egin zuen lehen batetan; eta une hartan zitekeen guztia egin zuen ere, beharbada. Baina ez du inolaz ere bere eginkizuna burutu. Euskara batuaren bidea urratuz urratuz joan da Euskaltzaindia, Herriari eta Liturgi Batzordeari goragoko helburu batzuk jarritz. Dinamika honetan abiatu gaude guztiok; eta dinamika honetatik begiratu behar diegu, orain arte Liturgi Batzordeak eman dizkigun textuei ere.

Liturgi Batzordearekiko obedientzia ez da geldia: ez du eskatzen, hark hasera* batetan emandako textuei lotuta egotea. Obedientzia hori dinamikoa eta bizia da, eta Euskaltzaindiaren bidetik doa. Liturgi Batzordearekiko obedientzia dinamikoa ez da anarkikoa: Euskaltzaindiak jarri baitzizkigu guztioi helburu eta arau batzuk.

Liturgi Batzordearekiko obedientzia Euskaltzaindiarekiko «obedientziaren» bidetik pasatzen da: euskarari dagokionez, esan nahi da. Bestela, berriz ere, bereak ez dituen soroetara* sartuko genuke Eliza, bereak balitu bezala. Elizak ez baitu hizkuntza baturik asmatzeko eskubide berezirik, eta bai herriari beronen hizkuntza «batuan» Liturgia emateko eskabide berezirik. Herriaren hizkuntza batu edo bateratzeko horren gidaria, berriz, Akademia da herri askotan, eta gurean Euskaltzaindia.

«Zesarenak Zesari eta Jainkoarenak Jainkoari» esan behar dugu hemen ere, Euskaltzaindia eta Liturgi Batzordea burruka zelai berean jar ez ditzagun. Liturgian Euskaltzaindiaren bidetik jotzea, Liturgi Batzordea laguntzea da: izan ere, honek nekez eman ahal izango dio Euskal Elizari eta Euskal Herriari beronen Liturgia euskara batuan, baldin Herria (euskaldun guztiok), Euskaltzaindiak ezarritako helburuetara irixteko, berorrek emandako dinamikatik abiatzen ez bada. Eta hau guztion

Eliza bat Herri batentzat

eginkizuna dugu, euskara batua herriak eta herrian egitekoa baldin bada, eta euskal Liturgia batua «herribide» dinamikotik egitekoa baldin bada.

EUSKAL ELIZAREN BILA

Izan ez den Euskal Eliza baten batzorde «ofiziala» bezala sortu zen Liturgi Batzordea. Eta askorentzat itxaropenbide izan zen, Euskal Eliza hori egiteko.

Itxaropen horik* baztertu egin behar ote ditugu? Gaur, euskarazko liturgi liburu guztiak —eta zenbat erabili behar izaten dugun meza bakoitzean, gero!— ikusten baditugu, inoiz baino nabariago* agertzen da Euskal Elizaren banakuntza, edo Euskal Elizarik eza. Bizkaian beren liburuak darabiltzate, eta igandeetarako beren liturgi horria ateratzen dute. Gipuzkoan geure liburu eta liburuxka piloa erabili behar izaten dugu, eta noizbehinka geuretzat prestaturiko homili gaiak. Baionan berentzat atera dute meza liburu eder bat: meza liburu berria, alegia,* giputzok eta bizkaitarrok geure meza liburu zaharraz ari garen bitartean. (Euskaldunok Liturgiako euskarak «banatu» egiten gaitu; eta euskarazko Liturgiak ere banatu egiten gaitu: Batzuk Trentokoan ari baikara, besteak Vatikanoko Bigarrenean ari diren bitartean).

Noiz hasi behar dugu, Euskal Eliza osoarentzat liburuak, aldizkariak, liturgi gaiak ematen? Zorionez hasia da, lehengo Abendutik, iganderoko liturgi horri bat: GOGO BERRI, Euskal Herri osotik egina eta Euskal Eliza osoarentzat egina. Noizko izango ditugu Euskal Elizarentzako (ez Lapurdirako, edo Gipuzkoarako, edo Bizkairako) Meza Liburu berria (aldarerako nahiz eskutarako) eta Liturgiako Irakurgai Liburu? Noizko Euskal Eliza osoarentzako Biblia? Hor eta han entzun ohi da, Bibliaren itzulpen berria prestatzen ari diren batzordekoak ez datozela bat euskara batuari buruz, eta nork bere liburua nork bere euskararen emanen ote digula... Beraz, gipuzkoarentzat Isaia profeta, bizkaitarrentzat Deuteronomioa, lapurtarrentzat San Luka, zuberotarrentzat Erromatarrei egindako epistola, nafarrentzat Genesisia, arabarrentzat San Joanen Ebanjelioa... Gutti gorabehera honela banatuko genuke Biblia euskal kristauon artean! Euskal Eliza sortzeko modu bikaina horixe!

Eta agian* ba da oraindik, banakuntza hori askozaz programatuago eta xehetuago duenik ere: beren euskara «pollitean» emanen lieke Biblia tolosarrei, beren euskara «bisi bisijen», bermeotarrei, beren euskara «beresixan» oinatarrei, beren euskara «eztian» Azkainekoei, eta abar, eta abar. Honela izatekotan, bukatua litzateke benetan Liturgi Batzordearekiko obediencia problema: Batzordearenak berarenak ere egina bailuke... Eta apez bakoitzak bere herriko euskara goxoa prestatuko litzuke irakurgai eta liturgi gai guztiak.

Euskal Eliza osoarentzat eta batuarentzat sortu zen Liturgi Batzordea, Eliza hori osoagotzeko eta batuagotzeko. Aita Agirretzek GOIZ-ARGIren 178. zenbakian dioenez: «Or (Liturgian) bai litzakela liburu batuagoa ta dotoreagoa ta euskara batuago ta berdiñagoa bear! Ortan ez dago alderdika ibiltzerik. Euskalerrriaren, Elizaren eta, batik-bat, diruaren batasunak, liturgi-liburu eder eta berdiñak egitera beartzen gaitu».

«Batuago» eta «berdiñago» hori, Euskal Elizari eta Euskal Herriari Euskaltzaindiak ematen dion batasun dinamikatik eta batasun bidetik bakarrik egingo da.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

balute, **balebe**
darabiltate, **darabilez**
daude, **dagoz**
diegu, **deutsegu**
digu, **deusku**
dio, **deutso**

ditzagun, **daiguzan**
dizkigu, **deuskuz**
gaude, **gagoz**
lieke, **leuskioe**
zitekeen, **eitekean**



Atera da

3. EUSKALDUNTZEN

Liburu hau, lehen eta bigarren EUSKALDUNTZEN ikasi dutenentzat edo oinharrizko alfabetatze bat egin nahi dutenentzat egina duzu.

Lehen eta bigarren liburuak **kaxeteetan** jarriak dituzu, etxean nahiz egokien datorkizun beste edozein tokitan zeure hizkuntza ikas ahal dezazun.

Kaxete hauk, mintzo ozen eta garbiz, euskaldun jatorrek grabatuak dituzu. Hirugarren liburukoak oraino ez dira eginak, baina laster ukanen dituzu.

Eska zuzenbide honetara:

EUSKALDUNTZEN (Euskaltzaindia)

Ribera, 6

BILBAO-5

ANAITASUNA
BIZKAIA

HAMABOSTEROKOA

JABEA:

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Biltzarre Nagusia.

Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25, Madrid-1)

BEHIN BEHINEKO ZUZENDARIA:

Imanol Berriatua, O.F.M.

ZUZENBIDEA:

Bulegoa: Pelota, 4-1.º Bilbao-5

Posta kaxa: 495

INPRIMATZAILE:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35. Bilbao-10

D. L.: BI-1.753 - 1967

Iparraldea iparlehiohotik

EUSKALDUN HERBESTERATUEN INGURUAN

Zenbait aste dira orain, Parisek erabaki duela, Hego Euskal Herriatik ihes etorri* Euskaldun multzo batek Ipar Euskal Herria utzi behar duela, Frantziako iparraldera joateko, han bizitzera. Erabaki hau, ikusten denez, Carre-
roren hiltzearen ondorio bat da. Alabaina,* Parisek eta Madrilek beren arteko harremanak zaindu nahi dituzte.

Desterratze horien inguruan hasi da, beti bezala, hai-
zea indartzen. Urtats* arratsean berean, hiru Lapurta-
rrek hasi dute Baionako eliza nagusian gose greba* bat,
hamabost bat egunez iraun duena. Hirurak gazteak eta
ikasleak. Haien gazte lagun batzuek laguntza talde bat
muntatu dute, beti bezala paper asko zabaltzen zituztela
anitz herritan.

Herbesterratuak zirèn Euskaldunak oro,* berriz Ipar
Euskal Herri honetara itzuliak dira; eta horien alde ager-
tu dira Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoko ehun familia,
«zuzenkontra lekutuak* izanen diren Euskaldun errefugia-
tuak geure etxean zainduko ditugu» diotenak. Oraingoan
gauzak horretan daude; eta iduri luke, familia horien egi-
tateaz geroz, Pariseko gobernuak ez dakiela xuxen zer
egin, egoera tinko hau bortxatu gabe...

Hau idazten dudan mementoan, Baionako eliza nagu-
sian beste bost gaztek daramate gose opor luze bat.

DIRU LAGUNTZAK EUSKAL KULTURARENTZAT

Hegoaldean Diputazioak bezala, hemen Ipar Euskal
Herriak eta Biarnoak* osatzen dute, Paue-n den «Conseil
Général» edo Diputazioa. Honek erabakitzen du honi eta
hari diru alde* bat zabaltzea, dela ekonomiaren alde, de-
la irakaskuntza edo kultura berezien alde. Aurten, hona
zer diru emanen duen euskal kulturaren alde, eta zein
batasun izanen diren lagunduak:

«Haize Garbia», Hendaian: 50.000 pezeta.

«Eskualtzaleen Biltzarra», Baionan: 150.000 pezeta.

«Ikas», Baionan: 415.000 pezeta.

«Endaya», Hendaian: 25.000 pezeta.

«Kanboko Ikasleak», Kanbon: 31.250 pezeta.

«Donibaneko Ikasleak», Donibane Lohitzunen: 31.250
pezeta.

Ikusi denez, aurten «Seaska» batasunak ukan du bes-
te urteetan baino diru gehiago. Erran behar da ere, bata-
sun horrek bere hamabi ikastolekin ba duela non zer
egin. Urteko gastuak 3.750.000 pezetatakoak ditu.

ABEREAZ EZIN SALDUAK

Ipar Euskal Herrian famatuak dira hiru feria edo azo-
ka. Bat Garruzekoa (Donapaleu ondoan). Bestea Heleta-
koa, eta hirugarrena Ezpeletakoa. Aurten feria horietara
agertu diren abereak, ezin salduak bezala izan dira. Ber-
din ikusten da merkatuetan bildotsekin. Gauzen prezioak
goratu baitira, erosleak xuhurkiago bizi dira orain. Egia
da, gazolina edo ezantza eta gaza ehuneko hogeiz gora-
tu dituztela.

LIBURUTTO GORDIN BAT

Manex Goyhenetche gazteak liburutto bat atera digu
ELKAR argitaldarian, Ipar Euskal Herriko kultur egoera
sakonki ikertzen edo aztertzen duena. Ez da luzea izanen
irakurtzeko; baina ez dugu dudatzen, harrera handia uka-
nen duela, kultur lanetan dabiltzaneren artean. Erdaraz
idatzia da, eta zazpi franko berri balio du.

LANTEGI BERRIA BAIONA ONDOAN

S.A.T. izeneko lantegi berri bat, telekomunikabidee-
taz, eraikiko da Baiona ondoan, Mugerreko lurretan. Dio-
tenez, zazpiehun langile, gehienak emakumeak, emplega-
tuko ditu. Hau berri ona da alde honentzat. Buru argi eta
eskuetako trebetasun handia eskatuko dituen lan bat.
Beharbada, lantegi honen inguruan beste lantegi ttipi ba-
tzu eraikiko dira.

Lanak hasiak dira, eta , udazkeneko, lantegia zutik
ikusten ahalko da, Baionatik Mugerre aldera doan bide
bakterrean.

M. HERRIZAIN

daude, dagoz
digu, deusku

Lea-Artibai eskualdean

Lea-Artibai eskualdea* abandonatuena edo abandona-
tuenatarikoa dugu Bizkaian. Horretaz oharturik, norbai-
tzuk ari dira, zerbait egin nahiz. Hor dugu Lea ibarreko
arduradunen batzordea.

Munitibarko herria, Lea-Artibai eskualdekoa izan
arren, Markina eta Gernikako bide erditan dagoenez, ba-
tzordekoek jakin gura izan dute, munitibartarrek norako
joera duten, Markinara ala Gernikara. Hori dela eta, in-
kesta* bat egin dute herrian.

Benetan pozten gaitu, herriaz eta eskualdeaz egiazki
arduratzen direnak ba daudela jakiteak.

E. G.



DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

AMALUR RESTAURANTA
KAFETEGI

Axular-en HIZTEGIA

Euskara - Español - Français

Español - Euskara
Français - Euskara

Aita Luls VILLASANTE

JAKIN
BIDE

Zer da Hiztegi hau?

- Euskal idazlerik handienaren gordailua: hitz, esaldi eta idazmoduak jasotzen ditu.
- Euskal hitzaren ondoan espainolezko eta frantsesezko itzulpenak agertzen dira. Eta hitzen ondoren esaldiak datoz.
- Hitz eta esaldiok bi eratarata bila daitezke: euskaratik erdarara nahiz erdaratik euskarara.

Zertarako da Hiztegi hau?

- Axularrengandik euskararik jatorrena ikasteko, bera baita euskal prosaren sortzaile bikaina.
- Batez ere, hitzekin batean euskal joskera jatorrak jasotzeko.
- Idazle klasikoengandik hasirik, euskararen batasuna egin dezagun.

Norentzat da Hiztegi hau?

- Lehendabizi, irakasle guztientzat beharrezkoa da. Eta berdin Unibertsitateko irakasleentzat eta aldizkarietako idazleentzat.
- Ikastola, ikastetxe eta Goi Ikastetxeetan premiazkoa da, kontsulta liburu bezala.
- Euskaltzale orori oso baliozko gertatuko zaio Hiztegi hau bere irakurraldietan.

Salneurriak

650 pezeta liburudendetan.
% 10 pezeta merkeago ANAITASUNAren abonatuentzat.

Eskabideak

JAKIN, Aránzazu, Oñate, Guip. Tel. 781172.
JAKIN, Cuartel, 2, Tolosa, Guip. Tel. 651106.

Izena

Kalea Tel.

Herria Probintzia

Noizko euskal literaturlarien aldizkaria?

Ba zen behiala* Euskal Idazleen Elkarteá. Orain zertan den ez dakigu; baina, berriki,* EIE haren berriindartzearen alde mintzo ziren X. Kintana eta X. Gereño ANAITASUNAren berton. Gure kultur eta literatur aurreramendurako lanabes guztiz baliosa litzatekeela uste dudalako, nik neure deia jaurtikitzen dut gaur horrialde hauetatik.

Batasun arazoari begira sortu zèn EIE, berriro mar txan jartzeko ordua ba da. Arazo hau aurrera eramán behar da, jaunok, eta lehen bai lehen.

EIEk, Armendaritzen eritiziz, xede* hauk* ukanen lituzke: Hitzen esanguren finkatzea, synonymoen bereiztea, hitzen "kultur giroa" erabakitzea, teknika eta zientzia espezializatuen hiztegia eratzea, e.a.; horretarako batzordeak muntatuz (ikus ANAITASUNA, 257. zenbakia). X. Kintanak EIEri ezartzen dizkion helburuok oso ados datorke* euskal literaturlari oro.* Linguistik aldetik gure hizkuntzak dituen problemok askatu beharra dago ahalik eta agudoen.*

Baina entzun diezaiogun Armendaritzi, zer dioskun zenbait lerro aurreraxeago: "Oinharrizko lanok bete ondoren —alegia,* hizkuntza eredia* bateratu eta gero—, literatur eskola baten barrenean stylistika eta tankera* kontuan ere lanegin beharko dukegu,* euskara literatura moderno baten adierazpide zaluá* egiten badugu bederen*". Eta nik zera esaten diat, Xabier: Literatur estudioek linguistik estudioen gibelatik* behar dute izan, ala*? Literatur inguruko kontuak geroko gerorako utzi gabe, zergatik ez oraintxetik bertotik haiei lot?

Hau da nik proposatzen dudana: Literatur kreazio lanak, alde batetatik, eta kritik solas eta ikertze lanak, bestetatik, argitara emango lituzkeen literaturazko (hitzen zentzurik hertsienean*) agerkari baten sortzea. Euskal Idazleen Elkarteak berberak sorterazi behar luke bere barruan literatur aldizkari hori, ene eritiziz. (Zergatik ez Euskaltzaindiaren babesaren pean?).

Joera zabal eta aurrerazaleko agerkari bat behar lu ke izan, gaurko euskal literatur mugimenduaren adierazpide, eta egunen batetan abangoardiaren aldizkaria bilaka* litekeena. Pauso neurgaitz bat emango genuke horrela: literaturazale gazteok zer irakur eta non izkriba ukanen* genuke.

Aldizkari horrek ondoko sailok ukanen lituzke: Egungo literatur korronteen azterketa, textuen analisisa, izkribatzaile garrantzitsuenen (Axular, Joyce, Artaud, Sollers, e.a.) ezaguteraztea, gure literatura gaur eguneko molde eta joeren arauera* jartzea, eta abar.

Ezin uka, euskal produkzioaren kurbatura gorantz doan arauera, kritik eskasia nabarmen bat ageri dela gutartean. Literatur arloa, beraz, ezin daiteke, "hizkuntza eredia bateratu eta gero" aztertzeke laga.* Ez deritzak hala, Xabier?

Euskal Idazleen Elkarteak du orain hitza.

PERUGORRIA

Neure lantokitik

URDINEZ JANTZIRIK

Emmanuel John Hevi-k «Un estudiante africano en China» liburuan kontatzen digu, Txina osoan, monotonia aspergarri batez, jendea urdinez jantzirik dabilela.

Txinan betidanik ukan* dute koloreek garrantzi handia. Behin batean, europar merkataria bati otu* zitzaion jostorrazak Txinan saltzea. Milaka eraman zituen, paper horitan gordeta. Jostorrazok ez ziren saltzen, eta galde egin zien saltzaileei ea zergatik ote zen. Erantzuna hau izan zen: kolore horia enperadorearena zela, eta jendea ez zela erostera ausartzen.

Horia enperadorearena, eta urdina herri xehearena. Honengatik, komunistek, agintea eskuratu zutenean, urdinez jantz erazi zuten jende guztia, proletalgora jantzi-tara ere eramanez.

Baina, ene ustez, gauzak ez dira neurritik kanpo egin behar. Gauza bat da zuzentasuna, eta beste bat zuzenkeria. Gauza bat, zerbait ondo egitea; eta beste bat, ondoegi egin nahiz, larregikerian* erortzea. Eta beldur naiz, Txina osoa ez ote den Ordena bereko fraide eta seroren komentu handi baten antzeko bihurtuko (jantzien aldetik, noski), guztion barregarri.

ORDENA EREDUGARRI BAT

Eta fraideak aipatu ditugunez, erlijioso Ordena bat aipatu gura dut gaur hemen.

Dakikezuenez,* ANAITASUNA aldizkari honen jabeak Frantziskotarrak dira, eta aipatu nahi dudana Ordena Frantziskotarrena da. Baina batek ez du bestearekin zerikusirik. Honekin esan nahi dudana, hau da: nire asmoa ez dela aldizkari honen jabea intzentsurik botatzea, guztion begi bistan dagoena idaztea baino, ea beste Ordenetakoak zuzpertzten* diren.

Esan nahi dudana, zera da: gaur Euskal Herrian Frantziskotarrak direla aitzindari* euskal literaturan. Luis Villasante, Joan Mari Torrealdai, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti, Bitoriano Gandiaga, Felix Bilbao, Paulo Agirrebaltzategi... Lehen mailako idazleak, oso langileak (argitaratzen dituzten liburuak eta idazlanak ikustea besterik ez dago) eta denak euskara batuaren aldekoak. Baina loratze hau ez da bapatean* gertatzen, lan eta giro baten fruitua baita.

Exenplu hau hona ekarri nahi izan dut, beste Ordentakoentzat eredugarri izan dadin, bai euskararen aitzinamenduari* Frantziskotarrek ematen dioten garrantzia, eta bai Euskaltzaindiari darakuskioten* begirunea kontuan harturik.

TXINATAR HIZKUNTZA

Eta Txina aipatu dugunez, esan dezagun zerbait txinatar mintzairaz.

Gramatika oso erraza du. Ez omen daduka deklinabiderik ez adiztegi konplikaturik. Bere zailtasuna idazkeran du, ez baitago alfabeturik. Hitz bakoitza sinbolu batekin idazten da. Bi mila sinbolu dakitzanak, irakurgai errazak uler ditzake. Kultur lanak irakurtzeko, 5.000 sinbolu berderen* ezagutu behar omen dira.

Dirudinez, gobernuaren asmoa latin alfabetua sartzeta da. Hori egingo balitz, txinatar hizkuntzak, aintzina-

ko gauza eder bat galdu arren, zabaltasun handiago bat lortuko luke, munduan diren errazenetarikoak bihurtuz.

«EVIT AR BREZONEG»

Egunkarietan irakurri dudanez, Frantziako telebistan bretoin hizkuntzan programa bat emateko ziren; baina azken orduan kendu egin zuten. Erantzun bezala, bretoin talde abertzale batek errepikagailu bat zartarazi* zuen, 60 milioi pezetatoko galera sorturik. Tokian hitz hauk* ipini zituzten: «Evit ar Brezoneg» (bretoin hizkuntzaren alde).

Ni ez noa orain, egintza hau epaitzera. Bakarrik galde bat egingo dut: Talde horren erantzuna ba dakigu zein izan den; baina zein izan da jendearena? Nola erantzun du herriak?

Ez dugu talde baten eskuetan utzi behar hizkuntzaren defentsa. Galdurik ikusiko dugu euskara euskaldunok, herri bezala defendatzen ez badugu. Hauxe da, berri honek gogorarazi behar diguna. Euskara salbatzeko, guztiok egin behar dugu lan, eta elkaturik, ez elkarren kontra burrukatuz.

Gipuzkoako herri batetan, kooperatiba batek urteko irabazietatik 700.000 pezeta eman zituen herriko ikastolarako, laguntza bezala. Euskal Herrian hainbat eta hainbat euskaldun aberats dago, eta hainbat eta hainbat enpresa. Zer ematen dute horiek ikastolentzat?

ZERGAK

Guztiok dakigun gauza da, Espainian zenbat estalketa egiten den, zergetarako aitormenak egitean. Orain, «Impuesto de la Renta» delakorako deklaraziorik egiten ez bada, 15.000 pezetatoko multa ordaindu behar da.

Beste nazio batzuetan, Estatu Batuetan adibidez, zergetako estalketak zigor legediak gaztigitzen ditu, errudunak* presondegira eramanez. Espainian hori egingo balitz, hainbat enpresatako aministrazio kontseilukoek Carabanchel-en egon beharko lukete.

Xabier GEREÑO

dezagun, daigun
digu, deusku
diote, deutsoe
ditzake, daikez
zien, eutsen
zitzaion, jakon



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15

BILBO - 1

Gure Munduko Albisteak

René Lafon euskaltzaina hil da

Otsailarekin euskaltzain bat hil zaigu: René Lafon azterlaria.* Linguista hau, frantsesa jatorriz, Bordeleko* irakaslea zen, eta, XVI. mendeko euskararen paregabeko espezialista bat izateaz gainera, oso ongi ezagutzen zituen Kaukasoko hizkuntzak, georgiera batez ere. Jaun honek hainbat liburu eta artikulu publikatu ditu frantsesez, euskaraz eta ingelesez gure hizkuntzari buruz, maiz* euskara-kaukasiar hizkuntzen ahaidetasuna frogatu* nahirik.

Goian bego hain euskaltzale porrokatua eta bihoazkie* haren etxekoei euskaldun guztion doluminak.

Arias Navaroren hitzaldiaz

Egun bazuk lehenagotik iragarririk* zegoenez, Arias Navarro jaunak, Espainiako Gobernuaren presidentea, hitzaldi bat egin du otsailaren* 12an, hartan bere kabinete berriaren programma politikoa adieazteko.

Arias Navarrok ondoko puntuok aipatu zituen: Ordena publikoari eutsi beharra, terrorismoaren kontrako ekintza ofiziala, Armadaren* oinharrizko garrantzia, Francoren gobernamolde jatorraren iraupena, espainolen partaidetasun politiko handiagoa eta Eliza-Estatu arteko harreman errespetuzkoen komenientzia.

Partaidetasun politikoaz den* bezainbatean, Arias jaunak esan zuenez, alkateak eta Diputazioetako presidentea herritar edo eta hiritarren boto zuzenez aukeratuko dira, horretarako laster agertuko den lege baten bidez. «Espainol guztiek —deklaratu zuen presidentea—, beren gogoz parte hartu nahi ez duketenek ezik,* politikan sartzeko eskubidea ukanen dute».

Agertzeko den lege horretan, segur aski, kargu politiko horietarako kandidatutzat nortzuk eta nolako baldintzen pean presenta daitezkeen azalduko dateke.*

Hitzaldi hori dela eta, Espainiako prentsak aho batez txalotu ditu Arias Navarro jaunaren hitzak, berauek espainiar politikari dalkarkioten zabalera berria dela kausa. Euskal Herrion —eta Katalunia-Galizian beste horrenbeste gertatu delakoan gaude—, zenbaitzuek Arias Navaroren deklarazioetan Espainiako eskualde* ezberdinen aldeko politika berezirik eza seinalatu dute kezka. Isiltasun horretan, gainera, batzuek erregionalismoari ateak hertsit* nahi bat dakusate* alde aurretik.

Deustuko Unibertsitateko grebak

Otsailan unibertsital nahaste gogortxoak egon dira Deustuko Unibertsitatean, estudiante gehienak eskoletara joan gabe geldituz. Beste gauza batzuen artean, unibertsitariak, 29 lagun expedientaturengatik, jesuiten Unibertsitate horren ofizialtasunik ezaz eta zenbait irakasle unibertsital mailarik ez omen dutelako egin dute protesta.

Otsailaren 18an, Philosophia-Letretako azken kurtsuetan, Erromaniketean, estudiante gehienak eskoletara bihurtuak ziren; baina beste batzuetan, Zuzenbideko Fakultatean eta Histori Sailean, askotxo ziren oraindik, eskoletara ez joatea erabaki zuten kurtsuak. Ferrer Pi jaunak, erretoreak, ordena akademikoa lehenbailehen berrezartzen ez bada, neurri gogorrez erantzunen duela mehatxatu du. Egun guztiotan polizia harmatuak Unibertsitatearen inguruan egon dira, mutinazioen zain.

Bilbo: poliziak hamalau lagun ETako harrapatu ditu

Joan den ostegunean,* otsailaren 14ean, poliziak hamalau lagun harrapatu ditu, ETakoak omen. Hauen artean Jose Agustín Orube Etxebeste dago, 26 urtetakoa, poliziak dioenez, ETak Bilbon zuen militar arduraduna. Besteen artean estudiante batzuk zeuden, Deustuko unibertsitari, zenbaitzuk.

«Euskalduntzen 3.»ren presentazioa

Otsailaren 15ean, arratseko 8etan, Jose Ramon Etxebarria idazkideak «Euskalduntzen 3.»aren presentazio ofiziala egin zuen Bilbon, Galería del Libro izeneko liburudendan, obraren mamia eta helburuak adieraziz. Bileratxo hartan euskaltzain batzuk, Bizkaiko prentsa-irratien ordezkariak eta euskal ikasle batzuk egon ziren. Ondoren Ercilla hotelean lunch arin horietako bat eskaini zitzaizen guztiei.

Esnearen prezioa lehengo bestean baserritarrentzat

Zentralek, aldizkarietan, esnea 10 pezetatan ordainduko zietela baserritarrei agindu* zuten; baina azken hilabeteotan bizkaitar nekazariak lehengo bestean, 9,25etan kobratu dute beren produktua. Burla ageriagorik bai ote?

Hori dela eta, Gernika eta Markina aldeko baserritar askok, protestaz, esnerik ez ematea erabaki berri dute.

Soljenitsyn herbestaturik

Aleksandr Soljenitsyn idazlea Sobietar Batasunetik egotzia izan da otsailaren 14ean, honez gainera sobietar hiritartasuna kendurik. Moskuko agintarien neurri gogor hau,* munduko intelektual gehienek kondenatuak, errusiar idazle ausart* honen portaera kritikatuak erakarri ditu, bere liburuetan, Goulag-eko Arkhipelagoa deritzon azken obran bereziki, gobernuaren askatasunik eta giza errespeturik eza salatzen duelako.

Alemania eramana, Soljenitsyn bere adiskide Heinrich Böll aleman idazle famatuaren basetxean egon da egun batez, eta biharamunean Suizara pasatu. Sobietar agintariak deklaratu dutenez, haren andreari eta haurrei ez zaie batere eragozpenik ezarriko, Sobietar Batasunetik irten* daitezkeen.

Errusiako eta beste sobietar errepublika sozialistetakoa idazle askok gobernuaren erabakiok txalotu dituzte, Soljenitsyn traidoretzat epaituz. Beste intelektual asko, berriz, Sakharov, sobietar bonba atomikoaren aita hauen artean, Soljenitsynen alde agertu dira.

Mendebaldeko* Herri guztietan, ia prentsa gehienak, zenbait alderdi komunistarena izan ezik, Soljenitsynen herbesteratze hau kondenatu du, bai eta intelektual disidenteekin sobietar gobernuarena baino portaera gogorrago eta faxistago bat duten gobernuetan ere, e.*b. Grezian, Brasilen, Txilen, e.a.

«ARINKA»: untzi berri bat bataiaturik

Urtarrilaren 26an, Muruetako untzigindegian, Gernikako ibarrean berau, «Arinka» izeneko untzia bataiatu eta itsasoratu dute. Untzi hau «Bilbao Shipping S. A.» izeneko enpresaren flotakoa da.

Irudiz, berri honek berez ez duke* euskal publikoarentzat interes berezirik, euskal izena ezarri diotela kenduz gero. Eta koxka,* hain zuzen ere, horrexetan datza.*

Aita Urrutia jesuitak II. Euskal Anthropologi Asteko agerietan publikatu dituen dokumentuetan, argiro ikus daiteke Espainian ba dagoela untziei euskal izenak ipintzea galerazten duen erabaki ofizial bat. Sota eta Aznar Itsas Konpainiako Gorbea Mendi... xelebre haik* Monte Gorbea bilaka* erazi ziren gerra ondoan. Hauzia, beraz, ez da pertsona izenekikoa bakarrik.

Dena dela, irakurleak aisa* uler dezakeenez, gerra ondoko lehen urteetan emandako erabaki hori —oso oker ez banago oraindik zutik dirauena— ez da aspaldion praktikan betetzen. Estatuak berak, noski, holako erabaki hori sasoi urrun batetako berotasun eta grinapean eman dela ezagutzen duke.* Honetan, askatasuna eman edo ez ikusiarena egiten du gaur egun, eta guk zuhur deritzogu jokabide horri.

Gure galdera, ordea, hauxe da: zergatik ez da berri-kusten erabakia bera, ofizialak ez diren hizkuntzei **pape-rean** ere ezagutza eta errespetu gehixeago agertuz? Eta untxiak alde batera utzirik, zergatik ez berriro ikus **erre-gional** pertsona izenekiko erabaki arbitrarioa, gerra ondoko berotasun berean emana? Zeren, gure uste apalean, 1939.eko lege batzuk, zenbait puntutan, 1974.eko arazoe-kiko, atzeratu xamar gelditu baitira. Ea, bada!



**NOMENCLATOR
COMERCIAL**

**MERKATALGO
IZENDEGIA**

BANCO DE LA VASCONIA



Banco de la Vasconiak Denda Izendegia atera du

Aurreko zenbakietan esan genuenez, **Banco de la Vasconia** etxeak egunotan zabaldu du Euskaltzaindiaren **Merkatalgo* Izendegi** ofizialaren edizioa. Obra hau 30.000 aletan atera da, eta hartan denda izenak euskaraz nola ezar daitezkeen argitzen da. Presentazioa hilabetearan bukaeran egin zen Iruinean, bankuaren zuzendariaren eta euskaltzainburuaren hitz batzuekin. Eskatzeko, bankuaren eta Euskaltzaindiaren bulego* guztietara joan daiteke, dohainik* ematen dira eta.

Frantzia bretoiek telebista dorre bat birrindu

Otsailaren 13-14 arteko gauean, Britainiaren Askatasunerako Fronteko eta Brétoi Armada* Errepublikarrek lagunek (F.L.B.-A.R.B.) Roc-Tredudon-eko telebista dorrea plastikatu dute. Dorre hau 218 metrotakoa zen eta guztia birrindurik gelditu da, 300.000 pertsona inguru, gutierrez bi hilabetetarako, telebista programarik gabe utzirik. Hauxe izan da, bretoiek Frantzia orain arte egindako atentaturik handiena, teknikalariak diotenetik hura konpontzea, laburren jeta, 5 milioi franko (60.000.000 pezeta inguru) beharko baitira, urtebeteko lanez.

Dirudienez, plastikatzeko hau, frantses telebista* harma desbretoiz-tzaile bat delako protestaz egin dute; nahiz eta Bernard Griveau jaunak, Rennesko telebista dorreak zuzendariak bretoi hizkuntzaz urtean 16 ordu ematen direla deklaratu, hau da, 18 minutu astean.

Frantziako prentsak, oro* har, kondanatu egin du plastikatzeko «sal-baia» hau, honetan komunisten **L'humanité** eta eskuinaldeko aldiakari guztiak batera etorririk. Zenbait egunkaritan, ordea, Pompidou-ren gobernuaren erregionalismoaren aldeko programa bategatik heldu zela boterera esaten dute, eta eskualde atzeratuen ekonomia eta autonomia zergatik azkartzen ez den galdetzen dute.

Barreneko ministroa den R. Marcellin jaunak, bere aldetik, Frantziako autonomista guztien azken ondorioa Estatuaren Segurtasunerako Tribunalak besterik ez dela deklaratu du, Frantzia bat eta zatiezina izanik, banaketaren aldeko ekintzak oro* aberriaren batasunaren kontrako krimenak direlako.

Baionako katedralean berriro gose grebak

Otsailaren 18an frantses polizia 37 lagun atera zituen Baionako katedraletik. Alde bateko eta besteko euskaldunak. Guztiok protestaz ari ziren, bertako gobernuak euskaldun ihesegin batzuk Frantziako iparraldera bidaltzeko erabaki bat hartu duelako. Grebalarien artean Pérez Revilla eta Lujua bilbotarrak zeuden.

Liburu Berriak

«Langileria Historian Zehar (II)», Mikel Ugaldek, GEROn

Mikel Ugalde gazte bipilak,* aurreko batetan, bigarren Internazionala arteko langile mugimenduen trajektoria eta gorabeherak azaldu zizkigun sail honetan bertan. Oraingo hau, berriz, hari jarraipena ematera datorkigu, hots,* 1889.etik gaur arteko europar langileria historia, Euskal Herriarena barrenean dagoelarik.

Lan hau, serioa egin izan arren, ez da irakurle mordo jakitun zutendua moldatua, jende arruntago* eta ikasgurako bati zuzendua baizik, zabalkunde mailakoa. Hizkuntza aldetik liburu erraxa da, nahiz eta hiztegiaren oker nabari batzuk egon (Gaztelania, kasu,* hizkuntza bat da, ez lurralde bat, berau Gaztela baita, e.a.). Liburu gomendagarri bat, beraz.

«Hego-haizearen ipuinak», Lurdes Iriondok, GEROn

«Kimu» sailak bere laugarren zenbakia eskaini digu oraingoan eta ez nolana hain, halajaina!* Honez gero Lurdes Iriondo kantari bikaintzat bagenuen ere, hemendik aurrera ipuingiletzat ere nor ba dela aitortu beharko dukegu.

Liburutto honek bost ipuin dakartza, umeei begira moldatuak eta haurren beren irudiez apainduak, guztiak hego-haize jaun ibiltari eta jikitunaren ahoz kontatuak. Ba dute ipuinok gaiza eta piperra, bai horixe. Noski, ez zaio Bizkaian haize honi alferrik esaten **andre haizea**, eta horregatik **Ondarrabia herri ttikia** ipuinean maitasun arazoak ere ederki daki kontatzen haizeak. Oso egokiak, bestalde, herri kanturak tartekatzea, pentagrama eta guzti, azken partean, berak haurrarentzat alaiagarri baitira.

Hitz guttitan, bai GERO sortak eta bai Lurdesek guztion txaloak merezi dituzkete.*

«Haurrentzako hiru ipuin berri», CINSAn

Ikastoletako irakurgai eskasiak kezaturik, Bilboko guraso eta irakasle talde batek liburu sail berri bat eman dio hasera.

TXINPARTAK saila deritzan honek irakurgai mailakatu batzuk eskaini nahi dizkio ikastolari, irakasleentzako zenbait orientabide-rekin.

Presentakeraz eta irudiz begibetegarri, 1, 2 eta 3. EGB malletako haurrek pozik irakurriko dituztelakoan gaude. Lehen agerraldiko hiru ipuinen tituluak hauk dira: HIRU ANAIEN LARRIALDIK, SIND-BADEN IBILERAK eta ZALDI HEGALARIA.

Dakigunez, datorren ikasturorako beste hiru ere programaturik dituzte, eta Euskal Herriko animaliei buruzko lan interesgarri bat ere argitaratzekotan omen dira. Harrera ona aurrez segurtatua dutela gaineratuko genioke berri honi.

Joseba Intxaustiri automobila ebatsi

Joseba Intxausti JAKINeko zuzendariari norbaitek automobila ohostu* dio. Dakigunez,* gazte langile honentzat lapurreta honek kalte ikaragarria egin dio, bere ibileretan ezin premiazkoagoa zuen eta. Kotxearen matrikula hauxe da: SS. 63.783, Seat-600 zuriska bat. Inork ikusiz gero, mesedez lehenbailehen hari esateko erregutuko genioke, Tolosara 651106 telefonora deituz. Eskerrik asko.

ARMENDARITZ
(74-II-19)

daude, **dagoz**

dezake, **daike**

digu, **deusku**

dio, **deutso**

diogu, **deutsagu**

diote, **deutsoe**

dizkio, **deutsoz**

gaude, **gagoz**

genioke, **geunskio**

zaie, **jake**

zaio, **jako**

zeuden, **egozen**

zieten, **eutseen**

zitzaien, **jaken**

zizkigun, **euskuzan**

Horkheimer: optimismoa eta pesimismoa batera

Beste neomarxista gehienekin gertatzen den antzean, Horkheimeren «dotrinarik» ez dago. Horkheimer ez da gauza jeneraletaz jeneralki mintzatu («historia zera da, edo historia lege hauek taxutu da, edo ideologia zerak zertzen du» esaten dutenen moduan). Horkheimerek ez daduka, gauza denak dakitzan teoria unibertsalik. Gal konkretuetan ibilli da, azterketaren mugetan gelditu da. Beraz, Horkheimeren dotrinarik edo sistemarik ez dago.

Ez zen espezializazio positibista hutsetan gelditzen, hala ere. «Aldizkarian» lanean ari zirenek, gizartearen osotasuna argitu nahi zuten. Ez puntu banaka batzuk bakarrik. Osotasuna bai, baina teoria orokorrik* gabe. Beraz, marxismo ofizialaren espekulazioetan ez erortzeko,* Horkheimer eta haren jarraitzaileak azterpide positibo eta neutral (?) «tradizionalerik» baliatzen ziren, hau —esannahi hegelianoan— kritikoki «superatuz»: fenomeno sozialak enpirikoki hauteman eta xeheka, barnetik argi, haien arteko loturen hipotesia egin (esplikazioa ez baita hipotesi bat besterik) eta situazioa kritikoki trazenda.*

Gizartearen kulturaren kontenituak —pentsamentu politikoa, teoria estetikoak, eta abar— azterkatzen zituelarik, Horkheimer ideologi kritikoa zen; ba zekien, ideologiok ez zirela berenez, interes partikularren eragipenik* gabe, ernetakoak; ba zekien, alegia,* kulturaren kontenituak eta bizitzaren prozesu materialak elkar osatzen dutela. Baina, lotura honen esplikazio mekanikoki gabe, kasu ba-koitzean loturok nolakoak izan ziren bilatzen zuen.

Horkheimeren asmoa «gaurko haroaren ibilpide, norabide historikoaren teoria» osatzea zen. «Zentzuaren» galdera, historiak zer zentzu duen, ez zuen bere lanetatik kanpora uzten. Baina ez zien gauzei, prozesoei, zentzu salbatzailearen bat behartzen ere: prozesoen zentzua prozesuetan beretan irakurri nahi zuen, ez haietatik kanpora (etorkizunean, adibidez, marxismo mesianikoak egin nahi izan duen moduan). Hobeto esan, bai zientziak eta bai prozesu partzialak, mugatuak, trazendatzen dituen zentzuak biziki arduratzen* zen Horkheimer. Baina horrek Teoria kritikoa «muga» egiten du. Hesparru* hartara ez dago zientziakin ailegaterik.* Zentzu hori geuk, gizonok, ezartzen dugu gauzetan: ez da gauzetan beretan dagoena, gure aurretik eta guregandik aparte.

Gauzetan beretan, prejudizio dogmatikorik eta dotrinararen baten begirunerik* gabe irakurtzen zuelarik, ortodoksoak askotan eskandalizatzen zituen: adibidez, stalinismoa eta nazismoa berdintzen zituenean, edo gizartearen «erabateko» aldakuntza* asmoak zorakeria kriminal deklaratzeko zituenean, edo eta liberalismoaren oinharri den lehiaketari, konkurrentziari, alderdi guztiz postiboak ere aurkitzen zizkionean.

Ingenuitate edo independentzia hau baino eskandalosoago zen, hala ere, ortodoksoentzat, Horkheimeren funtsezko* pesimismo historiko leuna. Ezin sinetsi zuen, historiak bere burua salbatuz bukatu duenik.

Gizabanako* eta gauzabanako* historikoa, gertaerak nahiz pertsonalitateak (enpirikoki hautematen* duguna, banakoa* izaten da, zatiak) historibidezko jatorriaren harian esplikatzeko eta ulertzen irakatsi zuen Hegelek: gertatzen dena ez da (bereko ezer); *bilakatu egin da*, ordea, prozesu batek horretaturik, ageri den horixe. Orain dena, izan zenetik irtena da. (Adibidez: Frantses Iraultzan ez da dena perfektua; baina hura* ez da abstraktuan hartu behar, nondik datorren begiratzeko baizik. Honela ongi konprenituko da, ez zedukala perfektua izaterik). Eta, bigarren, historiaren aurrerabide honetan, indar itsuren batzuk ez, baina «arrazoimena» ari da gauzatzen.* Arrazoimenaren obra da, Hegelen ustez, historia. (Adibidez: Frantses Iraultzan astakeria haundiak daude; baina, oro* har, arrazoimenari hobeto dagokio Ancien Régime zelakoa baino, nahiz eta hemen, agian,* Iraultzan bezalako astakeria partikular larririk* ez egon).

Naturaleza eta arrazoimena burrukan ari dira; baina arrazoimena ari da burruka irabazten, eta halako noizbait arras* lortuko du garaipena. Historia goraka doa, beti hoberaka. Egun hartan, arrazoimena eta historia osotoro batera jotzera ailega daitezenean, historia guztiz arrazoizkoa izanen da, fenomeno guztiak transparenteak eta denok ulertzeko modukoak izango dira. Arrazoimenaren kontrako gauzarik ez da egongo, dena zuzen eta garbi egongo da.

Aurrerapenean* sinesten duenak, guti gorabehera honelakoxe esplikazioen bat eman beharko du, nahitaez. Eta esan daiteke, Hegelek, esplikazio honekin, historiarentzat, aurrerapenaren kontzeptua deskubritu zigula. Baina (eta hortxe dago kakoa) aurrerapena ez da hemen erlatibizatzen, kontzeptu sinple bezala erabiltzen da. Azalpen optimista honetan, historiaren zentzua garbi dago: gertatzen den guztia, helburu hartarako mailaren bat da.

Batzuetan zorigaitz asko sufritu beharko dugu; baina, Historia bere helburura ailegatzeko beharrezkoak direnez, sufrimendu horik* *bideak* besterik ez dira. Nazio aurreratu batek, aurrerapena azkartzeko, atzeratuago bat zanpatzen eta jaten badu, ederki egiten du. *Aurrerapena* garaile ateratzen baita. Eta hauxe da bigarren kokka: aurrerapen kontzeptu abstraktua, gizonon gainetikoa, da hori. Zentzu gabeziarik, absurdurik, frakasurik, ez dago. Denak, edozerk ere, zuzenera darama:* historiak ba du bere Probidentzia. Aurrerapenak eta ontasunak bat egiten dute.

(Hau sinplifikazio izugarria da: azterkariak demostraturik dago, Hegel bera ez zela hain absolutuki eta aldebakarki optimista, ez zituela absurdua eta atzerapena zeharo* ignoratzen. Baina, Hegelen eragipena nola desarrollatu den ikusirik, zilegi* dateke sinplifikazio hau egitea: ignoratu egiten ez bazituen, bere sisteman aktiboki jaso ere ez baitzituen egiten).

Marx ere historiaren ikuskera optimista honi jarraitzen zitzaion.

Horkheimer ere, arruntki, bai (eta gauzak hobetuz doazela, edo hobetuko direla itxaroten duen nornahi). Baina Horkheimerek Marxen parean Nietzsche miresten* zuen, eta Hegelen ondoan Schopenhauer; eta ezin onhartu zuen, bilakabide* historikoa sakrifika-turiko gizonak eta herriak salbazio historia batetan metafisikoki glorifikatzea. Horkheimerentzat, historia aurrerapena ba dago, baina absurdua ere bai. Bi Mundu Gerra ezagutu dituen pentsatzaile kritikoki batengandik, ezin itxaron* baitaiteke, XIX. mendeko optimismo inkondizionalaz segituko zuenik.

«Egiazko gauza da, historiak gizarte gutiago on batetatik gizarte hobe bat atara duela, eta bere prozesuan oraindik gizarte hobe bat sor lezakeela. Baina egiazko beste gauza bat zera da: historiaren bidea gizabanakoen* miseriaren eta oinazearen gainetik dabilela. Egiazko gauza bi hauen artean, korapilo eta elkar lotura *argigarri* pila bat dago, baina zentzu *legitimatzaile*rik batere ez» (nireak azpimarkak).

Bereizkuntza honen inportantzia nabarmena da: stalinismoa, Auschwitz, Budapest, Hanoi, eta abar, esplika daitezke, esplika (prozesu baten premiek «behartutakoak» bezala). Baina zuzenets,* ez. Onets,* ez. Ortodoksoek, ordea, beren «premia objetiboekin», esplikatu ezezik, onetsi ere egin nahi izaten dute edozein krimen «progresista». Txekosloveniaren inbasioa, esaterako,* Marxek Indiaren okupazio ingelesa zuzenets zezakeen moduan. Aurrerapenak eskatzen dituen sakrifizioak beti ontzat eman behar ei* baitira.

Konparazio batekin esateko: erreka bat beti aurrera doa. Bere bidetik irten eta soro eta zelaietan zehar badoa, esan daiteke, noski, aurrera doala; baina ezin esan daiteke, bere bidetik doanik. Aurrerapena ere batzuetan bere «aurrerapen bidetik» kanpora irteten da, eta inguruak hondatuz joaten da «aurrera».

Horkheimerek, ortodoksia marxistaren fedeko «aurrerapen» kontzeptu sinplea konplikatuz eta bereiziz, prozesu aurrerakoen kritikarako (Sobietar Iraultzen desarrolloaren kritikarako, adibidez) ez zuen eragozpenik.

Joxe AZURMENDI

dakitz, dakiz, dakizki
daude, dagoz
lezake, leike
zedukan (zeukan), eukan
zezakeen, eikean
zien, eutsen
zigun, euskun
zitzaion, jakon
zizkion, eutsozan

Nora daramate Nafarroa?

Orain bizpahiru hilabete, Iruineko kontseilarigaiak* gogorki haserretu ziren. Itxuraz, kontseilarigai zèn Urmeneta jauna, ez zen legezkoa. Hala zioten haren kontrakoek. Geroztik, kontpontzeko omen dago arazoa. Baina, itxura horien azpitik, politika talde erdi ofizialen arteko burruka ei* da. Urmeneta jaunaren garai bateko lana ezaguna da (urte askotan Iruineko alkate izan zen), eta, guti-asko, haren gerorako asmoak ere bai.

Egun hauetan, hor azpitik dabilen eztabaida (politika taldeen mokoka* bizia) argitara irten* da berriz. Iruineko Udaletxean,* hain zuzen, eta Nafarroako Unibertsitatea tarteko dela. Hor dugu, beraz, minaren mina, aspaldixkotik oso gaiztotua baitator Unibertsitatearen zauria.

Kontseilariak oso bero ibili omen dira Udaletxean. «Unibertsitari* Hiri»rako lurak desjabetu eta erosteko proposamena onhartua izan zen urtarrilaren* 24ean; baina eztabaida ez da sortu desjabetuzaren* arazoan. Unibertsitateak zabaldu beharra daduka, eta horretarako erraztasunak emateko prest dira denak.

Eztabaidaren gakoa beste nonbait dago. Kontseilari batzuen ustetan, lurak desjabetu eta Unibertsitateari eman beharko litzaizkioke, lurren jabetasun osoa Ikastetxe haren eskuetan utzirik. Honela, Udaletxearen egitekoa, lurak desjabetzean bukatzen da. Beste kontseilari taldearen eritziz, ordea, lur desjabetuok* Udalaren nahiz Diputazioaren menean iraun beharko lukete, lurren usarioa Unibertsitatearen eskuetan geratzen dela.

NAFARROA ETA AGINTE BIDEAK

Gure ustez, problema serio bat dabil zezenketa horren azpi izkututik.* Nor da edo nor izanen da, etorkizunean, Nafarroako Unibertsitatearen jabe? Nafarroa ala Nafarroatik kanporako lanean ari den lagunarte bat? Iruineko Udaletxeak eta Nafarroako Diputazioak nola eta zer medioz segurtatu behar dute, Nafarroarentzako asmatu eta sortu zèn Unibertsitatea? Edo eta nork agindu behar du, instituzio horiek Unibertsitateari eman dizkioten diruen gain? Dirua emateaz aparte eta ondoren, Nafarroako Diputazio eta Udaletxeak ba dutea* deus* esatekorik, Nafarroak behar eta nahi lukeen Unibertsitatearen kultur politikaz?

Ikus daitekeenez, aginte politikoaren lehiaketa bat da hau. Eta, sokatira horretan, nor baliatzen da nortaz? Zer da Nafarroa «bere» Unibertsitatean, jabe ala morroin?

Nafarroaren kultur bideen jabetza dago hauzitan. Orain hogeitsu urte, instituzio on bat ukan* zuten Nafarroan, eta geroztik elkar lagundu* ere egin dute Nafarroak eta Opus Dei-k. Unibertsitatean, egin da lan, eta ez dena txarra, ez eta ona ere. Ikastetxe horrek, histori abagadune* bakoitzean, eman du bere nolabaiteko erantzuna. Baina beti izan ditu inguruan (barnean ez da izan hain posible) bere tentsioak.* Nafarroan eta Elizan indar berriak eta pentsamolde berriak pizkortu diren neurrian, tentsio horik geroz eta indartzenago ari dira.

Hasera* haseratik, Iruineko Goi Ikastetxe horrek bere baitan* du antinomia nagusi bat: Nafarroako Unibertsitate izan nahi zèn Ikastetxea, mundu osorako mesianismo batekin ari den Eliz Lagunarte baten eskuetan gelditu da. Eta, horrela, geroz eta nabarmenago agertzen zaigu horko sokatira hori: norako lan egin behar du Ikastetxeak, Nafarroarako ala Keniarako?

Ba dakigu, noski, guk ere, Unibertsitate orok* mundu zabalera begira lan egin behar duela. Nola ez? Baina erantzun horrek ere ba du bere kontraerantzuna. Eta asko dira Nafarroan, dirudienez, kontraerantzun hori dakitenak.

EUSKAL HERRIA ETA UNIBERTSITATEA

Euskal Herriak bere Unibertsitatea egiteko daduka oraindik; eta askotan galdetu diogu geure buruari, ea nondik bultza genezakeen ideia hori aurrera. Iruineko Ikastetxeak eman lezake —horretan itxaropide* handirik ez badugu ere— etsenplu ederrik franko.

Orain artean egin duena, liburu sail bat ahantzi gabe, ez da izan izugarria. Agian,* Ikastetxe haren gidari direnengan, Euskal Herria izan ere ez delako. Ez genuke, noski, euskal katedra bat edo beste ba dela han ahantzi nahi. Ez horixe.

Euskal Herri osoari falta zaiona, Nafarroari oso osorik zor zaio, dirua ere jarrita baitu, joan diren urteetan. Eztabaida horiek diotenez, Iruineko Udaletxean bat baino gehiago da, Unibertsitate hartaz nahiko zalantza duena.

Urteak joan, urteak etorri, nafar dexentek* ikusi du eta galdetu du dagoeneko,* dadukaten Unibertsitate hori ez ote den gertatu zeharbide engainagarri bat. Beharbada, ikastetxe horren «interesak» ez daude Nafarroan. Eta —okerrago izan litekeena— ezin litezke egon ere.

NAFARROA ETA OPUSTARRAK

Nafarroako Unibertsitatea Eliz Lagunarte batena da (ez dut uste, oraingoan bestetako eskapabiderik izango denik: Opustar bakoitza bere aldetik, kasualitatez elkartuta, egindako zerbait dela esango zaigunik). Eliz Lagunarte horrek elkar bezala hartu zuen eta daduka Ikastetxearen ardura, José M. Escrivá de Balaguer Monsinorea Kantzelari Nagusi dela. Baina Eliz Lagunarte batena izatea gaitzerdi litzateke, oraindik, geure gaurko ezbehar gordinetan erdi itoan gabiltzala.

Ba dirudi, azken urteotan —eta ondokoetan sakondu baiduz ez da egingo— Nafarroak jasaten duen pentsaera aldaketa eta Opustarren sentiera aldakaitza ez doazela batera parekide. Jakina denez, Eliz Lagunarte hau, eliztar kontserbakorren babesleku segurua ari da gertatzen. Eta hemendik urte sail batetarako espero litekeen Opustarren aldaketa, oso urruti ikusten da gaurkoz. Izan ere, Jesusen Lagundiak beste jite* berri bat hartu zuenetik, Opustarren artean sortu den kontserbakorren aterpea ez da berehala desegingo.

Horra, bada, gure Nafarroa kinka gogor batean. Nondik eta nola hartuko du Erresuma* Zaharrak bere eskuetan, nafar guztien kultur politika eraman dezakeen Etxe horren agintea? Hainbat Eliz Elkarrekin berrietara ireki denean, gure herrialde zabalena bere kultur jabetasuna galtzeko arriskutan aurkitzen da. Adorerik* izango* ahal dute Nafarroako gizonek, beharreko diren pausoak eman eta etorkizun jatorrago bat pizteko!

Antso AMAIUR

daude. dagoz
dezake. daike
diogu. deusagu
dizkiote. deusoez
genezake. geinke
lezake. leike
litzaizkioke. litzakioz
zaigu. jaku
zaio. jako
zioten. inoen, esaten zuten

«Libération: kazetaritza berri bat

Urte honetako otsailaren* 5ean, LIBERATION egunkariaren lehen urtemuga da. Urte bete iraun du, eta luzaz iraungo du oraingo martxan.

Urtebeteko bizitza ez da luzea. Hastapena* da, ordea. Eta LIBERATIONek, hautatu duen bidean, ba du meriturik. Ez baita erraza, herriaren gaurko moteltasuna mugieraztea. Eta Damoklesen ezpata beti gainean baitu LIBERATIONek, hots,* errepresioaren posibletasuna.

Gaurko kazetagitari desafio bat botatzen dio LIBERATIONek. Aske* nahi du izan. Ez indar politikoen, ez indar ekonomikoen, ez alderdien zerbitzuko izateko asmoarekin jaio zen.

LIBERATIONeko buru J.P. Sartre da. Eta taldean kazetari asko dago. Hauek ongi ezagutzen dute, munduan eta Frantzia prentsak nola funtzionatzen duen. Haien analisiak erakusten duenez, ekonomiazko indarrak bi erata hartzen eta erabiltzen du prentsa: bateko, periodikoa bera negozio eta dirubide bezala muntatuz; eta beste, bere interesetarako eta bere joerako politikazko taldeen probetxurako kazeta erabiliz.

Nagusi den joera honen kontra, LIBERATIONek demokrazia direktua, zuzena proposatzen du: herriaren nagusigoa, herriari hitza bihurtzea. Horretarako, 12 horrialde dituzte, askok entzun nahi ez duena entzun erazteko. Horietan, segetu* publikoak argitara ekartzen dira, gizarte burruken egiazko errealitatea plazaratzen da, lan arazoak, arrazismoa, eskualdeen* informazioa, telebistaren kritika... hori denori eta gehiago agertzen da, gainerako periodikoetan edo agertzen ez dena edo agertzen ez den moduan.

LIBERATIONek berri emateari eta berri emateko moduari lehen mailako garrantzia ematen dio. Hona zer zioen lehen zenbaki berezi horretan, printzipio deklarapen bezala:

«Denok amestu dugu kazeta libre bat, denok dakigulako (nahiz 'segetu ofizialaren' preso dagoen goi funtzionario izan, nahiz eskualdearen heriotzearen kontrako burrukan dabilen langile grebalarik* izan), eritzi publikoaren mobilizatzea demokrazia osoaren eta libertatearen aldeko burrukaren nahitaezko harma dela. (...). Herri bati sistematikoki ezartzen zaio segetua. Orduak jo du, burrukak, sufrimenduak, eguneroko gauzak eta esperantzak, isekaz* hartuak eta erabiliak izan ez daitezten, indarra duten gizon horiek (eta, hain zuzen, ezkutuan* daudelako indartsuago diren horiek) manipula ez ditzaten».

LIBERATIONek berriak haien gorrian eman nahi ditu. Eta, horretarako, haien hartan, herrian bertan jaso. Zuzenki, gertakarien muinera joanez. Kazetariak, entzuna idatzi besterik ez du egin behar. Euskaldunez, azkenaldi honetan, gehien edo mintzatu dena, LIBERATION izan da. Herriak berak jarri behar du martxan informazioa. Bera da informatzaile, idazle eta hedatzaile.* Egiazko elkar komunikatze bat sortu nahi du kazetak. Eta hori, agentzien manipulazioetatik iragan gabe, aginteen bahe* eta irazkietatik* urrun.

LIBERATION kazetaren slogana herriaren parte hartzea da. Hango idazleek, demokrazia zuzenaren izenean, demokrazia formalaren itxura gezurtatzen dute. («Gaur, diputatu bat hautatzea, herriak urtean lau aldiz bakarrik hitz egin dezan nahi izatea da» diote). Demokrazia zuzenaren izenean, sozialismo autoritarioa gaitzesten* dute, hemen ere, herriak berak ez, baina «herriaren izenean eta ordez» hitz egiten baita.

LIBERATIONek, nolabait esateko, nire ustez, Estatu Batuetako «underground» prentsaren eta hemengo legezkotzat prentsa moduaren arteko ezkontza egiten du.

«Aventure intellectuelle» bezala joa izan zèn entsegu* hau, hilik jaio zen, askoren ustetan. Urtebete bizi izan da, eta oso bizirik dirau.

Joan Mari TORREALDAI

daude, dagoz
dezan, daian
dio, deutso

ditzaten, daiezan
zaio, jako
zioen, inoan, esaten zuen

Euskal filologiari buruzko hitzaldiak Deustuan

Martxoaren 1ean: «Barandiaranen bildumako ipuinez puntu batzuk». Martin Etxeberria.

Martxoaren 7 eta 8an: «Gazteluzar eta haren ingurua». Piarres Lafitte kalonjea.

Martxoaren 13an: «Euskaldunen alfabetatzeaz». Murgiar jauna.

Martxoaren 21ean: «El substrato vasco en los romances ibéricos». Alfonso Irigoien.

Martxoaren 22an: «Valpuestako kartularioko euskal aztarnak». Alfonso Irigoien.

Ordua: arratseko 8etan.

Tokia: Deustuko Unibertsitateko hitzaldi aretoa, Bilbo.

Antolatzailea: Euskal Kultur Minegia.

LAPURRARI OHARRA eta adiskideoi deia

Urtarrilaren 19an, JAKINen berebela ohostu diguzu, lapurrorrek. Pentsa dezakezunez, eta diru galera ahortzi gabe, geure editorial lanetan atzerapen handi bat datorkigu hortik.

Kotxe lapurtua Seat-600 bat da, gris zuriska. Matrikula: S3. 63783. Bilbon harrapatua. Ikus bazenez; esaguzu, mesedez. Beste konponbide bat: Bco. de Vizcaya, c/c 30.325, Ed. JAKIN (Cuartel, 2. Tolosa. Tel. 651106). Eskerrik asko.

ALBISTEAREN MIZTOA

Mundua gaizki dabil: indarrrik gabe, energiarik gabe. Behin eta berriz esana digutenez, mundua gaizki dabil. Eta konpondu beharko genuke. Horretantxe ari dira Ipar Amerikako petrolio konpainiak. Horiek ba dakite nola egin behar den guztion konponketa. Ikus, bestela. Esso konpainiak 1972.etik 1974.era % 60z gehitu ditu bere irabaziak. Texaco-k, berriz, ez du atzera geratu nahi izan: 1972.eko 89 milioi dolarren irabazia 1.292 milioitara eraman du. Texaco-ren lehendakariak azaldu du zergatik gertatu den konpainiaren irabazien gorakada paregabe hori. Maurice Granville jaunak agertu duenez, petrolioaren eskasiak, eta beronek atzetik ekarri duen salneurrien goraldiak, lagundu egin du konpainia. Pozgarri da, noski, denok galtzeko arriskutan garenean, aberatsak bederen* salbatzen baldin badira.

* * *

Stromboni jauna presondegira eraman du frantses gobernuak. Stromboni hau Korsikako mugimendu politiko abertzale baten buru da, nonbait. Mugimendu hau FPCL delakoa da, hots,* «Korsikaren Askapenerako Nekazari Frontea». Legearen aginduz desegina izan da talde politiko hau, Frantziako gobernuak urtarrilaren* 30ean eman zuen dekretuaren arabera.* «Efe» albiste» agentziak esaten digunez, FPCLk deklarazio gogor bat zabaldu du otsailaren* hiruan, bere gidari espetxeratuen askatasuna eskatuz eta politika azalpen bat zabalduz: «Ez, Korsika ez da departamendu bat, nazio garaitu bat baizik. Guk nahi duguna, zera da: aitor dezatela naziotzat gure herria».

* * *

Espanian, azken urtean, berrogeitahamabi milioi pezeta izan dira lapurtuak. Hamabost banku izan dira bortxatuak, eta 35 milioi ohostu* dizkiete. Aurrezki* kutxei, berriz, 17 milioi pezeta. Bankuei ebatsi* dizkietenetik ia erdiak Banco Coca-ri eramanak izan dira: 17 milioi. Banco Atlántico-k hiru milioi eta erdi pagatu ditu, eta Banco Pastor-ek bi eta erdi. Hertzainak* ezin omen dira iritxi,* segurtamen guztiak ematera; eta bankuak hasi dira beren aldetik segurtagailuak ipintzen. Euskal Herrian ere bai. Beasainen, igande arratsalde batez eta tarteko lapurrik izan gabe ere, bortizki ekin* zitzaion bere egitekoari banku bateko adarra.* Oraindik ere ofizioa ikasten, nonbait.

* * *

Perón-ek asko ikasi du azken hilabete hauetan: indar gogorkeriarri ez omen dago indarrez baino erantzuterik. «A la violencia no se le puede oponer sino la violencia» esan du berak. Perón-ek esandakoek argilun eta ñabardura* anitz* dituzte, noski; baino jaso dugun honetaz, ba dago zer esanik. Legearen indarra aipatzen du hark, eta, uste dugunez, guk baino hobeki dakike* zertan diharduen. Hala ere (barka diezagula ausartzia), guk beste zerbait esango genuke: legearen zigorraren aurretik baliozko programa bat erabiltzen ez dakien politikariak, hobe luke beretzat eta guztiontzat erretiro atsedengarri bat hartzea. Indar gogortasunari programa eta ekintzarekin ere erantzun lekiok. Hau denau, eguzkiaren argitan da goen pellokeria* bat izan arren, on da ez ahanzte.

* * *

Ezagutzen al duzue José Oneto kazetaria? Irakurtzekoa da idazle hau. Ba ditu ideia eta berri jakingarriak. Bilbo eta Donostiako egunkari ezagunetan esaten ditu jakiteko batzuk* ere. Ez naiz ni, hari neure bedeinkapena

botako diodana; baina, tira, ba da hortik okerragorik. Madrileko politika taldeen saltsak nola dabiltzan nolabait usnatzeko,* ongi datoz haren albisteak.

* * *

Egunkari eta kazetariekin hasi garenez, goazen aurrea hortik. Abenduaz gero, bi gertakari nagusi jasan* ditu Espainiako ekonomiak: petrolioaren krisialdia eta pezetari ezarri zaion igerigarritasuna.* Bi gertakariok tarteko ditugula, ikustekoa ukanen* luke irakurleak garaiko egunerokoetan agertua. Lehenbadizikoan, arabeen adiskidantza babesgarri gozoan zegoen nazio osoa, eta segurtasun horrekin ez zen beldurrik. Geroxeago, isilalditxo bat. Azkenik, denok Europan geundela ohartu ziren egunkariok. Eta pezetaren historia berdin: lehenik, inongo diruaren krisialdiak aipatzen ziren, eta pezetak ez zuen arrisurik, ez baitzen besteak bezain ahula.* Lasai egon behar zuen jendeak. Gero, bapatean* pezetari ere flotagarritasuna ezarri zitzaion. Eta, egunkariotan, lehenagoko batean urrun zegoen «arriskua» zena, gobernuak erabakitakoaren ondoren, sekulako «abantaila» ekonomiko bezala ikusi zuten denek. Esan eta deserran,* albistariok.* Eta guk, ekonomi arazo nahasietan jantziak* ez izanik, dena sinesten diegu, alazankoa*! Ezjakina izatearen abantailak!

* * *

Jaume Perich-ek gauza biziki arraroak esan erazi ohi ditu. Aurreko batean, apez zahartxo bat eta ikasle unibertsitari bizardun bat eman zituen elkar hizketan, Unibertsitateetako ikas egutegia aldatu dutela eta, beren esatekoak azaltzen: «Bai, seme! —esaten zuen apezak— barka iezaezu, ez baitakite zertan diharduten». Eta bizardunak etsi* etsian: «Bai, noski, pozik barkatuko nieke nik, jakin baneki nori barkatu behar zaion». Izan* ere, azken aldiko aldaketa eta astinaldien ondoren, non ote da nik dakidan Rodríguez bat?

Joanes GOIA


dezatela, **daiela**
diegu, **deutsegu**
diezagula, **deiskula**
digu, **deusku**
digute, **deuskue**
diot, **deutsat**
dizkiete, **deutseez**

geunden, **gengozen**
iezaiezu, **eioezu**
lekiok, **leitokio**
nieke, **neuskioe**
zaio, **jako**
zitzaion, **jakon**

GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

HEGO EUSKAL HERRIKO AUTOAK

Hona hemen, Hego Euskal Herrian nola gehitu diren autoak azken zazpi urteetan:

	Kamioiak	Autobusak	Turismoak	Motoak	Traktoreak	Guztitara
Araba						
1965	4.142	111	3.642	6.845	28	14.768
1972	8.118	203	20.152	6.427	114	35.014
Gipuzkoa						
1965	9.043	400	14.945	23.791	13	48.192
1972	16.314	709	65.523	23.866	121	106.533
Nafarroa						
1965	8.872	461	10.210	19.300	61	38.904
1972	16.930	680	45.837	19.876	373	83.696
Bizkaia						
1965	15.357	634	29.796	25.302	82	71.171
1972	25.847	1.072	114.609	24.576	238	166.342
Guztitara						
1965	37.414	1.606	58.593	75.238	184	173.035
1972	67.200	2.664	246.121	74.745	846	391.585

Ehun urte

baino gehiago


diru aurreztapena

laguntzen



BANCO DE BILBAO

HARRI BATEKIN HASI ZEN





Ba daude gure artean, bai horixe, erdara gutti eta gaizki jakin arren, beti erdaraz parra-parra ari diren euskaldun batzuk.* Holakoxea izan omen zen, behin Durangoko mediku batengana joan zen andre bat. Medikua zer zuen galdetu zionean, hark honela erantzun omen zion:

—«Quemao el niño».

—Andrea! —esan zion medikuak— eta zergatik ez didazu ekarri? Ekardazu agudo,* ba,* neronek ikus eta senda dezadan!

—No, no —andreak biziki—, aquí tengo pues quemao el niño.

—Hemen? Non baina? Itxaroteko* gelan gelditu ote da? Sar dadila, ba!

—No, entender no me hases. Euskaraz esango dizut: erreumea daukat, erreumea!



...ETA BENETAN

Ikastola bateko autobusean neska-mutikoak zihoazen. Bost urtetako mutiko azkartxo batek ondoko neskatoari musu ematen ari zitzaion. Halako batetan mutikoa, irakaslea begira dagokiola konturatzen da. Orduan, mutikoak, irakasleak aurpegi txarra ipintzen diola ikustean, boz goraz hauxe diotso: —Gora Euskal Herria, irakasle! Gora Euskal Herria!

dezadan, daidan
didazu, deustazu
dio, deutso

zihoazen, joiazen
zion, eutson
zitzaion, jakon



HARA..., ORAINGOAN ALFER ALFERRIK ARI DITUN ESNE FABRIKAKOAK.

HIK, ETA ARRAZOIAZ GAINERA, ESNE ONA EMATEKO, PENTSU ONA ESKATZEN DIDAN.


PENTSU ONAK DIRU ASKO BALIO ZIN, ETA HIRE ESNEA, ALDIZ, NIRI MERKE ORDAINTZEN ZIDANATE. EZ DIAGON ZER EGINIK

ETA KISSINGER EKARRIKO BAGENU, EZ DUK USTE...?

EZ, ALFERRIK IZANGO LUKEN



GURUTZEGRAMA (35)



Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Ahoan dugu.—2. Ukan aditzaren forma (alderantziz).—3. Ereiteko egokia den lurra (artikuluarekin).—4. Bokala. Gurasoek eta seme-alabek osatzen dute. Bokala.—5. Zerk hartzen gaitu gauetz? Bokala. Zatia.—6. Pentsamenduz, ideiaz. Animalia.—7. Kontsonantea. Komentu bateko fraideek osatzen dute. Bokala.—8. Kolorea (alderantziz eta artikuluarekin). 9. Galdegile pertsonala.—10. Bete egiten duena (alderantziz).

Goitik behera: 1. Modu hartara (alderantziz).—2. Behakoa, begirada (alderantziz). Bokala.—3. Ospea, omena, entzutea. Kontsonantea.—4. Kontsonantea. Hondo haundikoa (artikuluarekin). Kontsonantea.—5. Klasea (alderantziz). Odola dabilen hodixka* (artikuluarekin).—6. Biguna, samurra (artikuluarekin). Holaxe gelditzen da burdina, sutan jarriz gero (alderantziz).—7. Gizena (alderantziz). Kemena.—8. Kontsonantea. Erreka (alderantziz eta artikuluarekin). Kontsonantea.—9. Etxeek edukitzen dute (artikuluarekin). Bokala.—10. Emea ez dena. Kontsonantea.—11. Buruan dugu (artikuluarekin).

AZALPENA. Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Hagin.—2. Dut.—3. Soroa.—4. A. Familia. 1.—5. Loak. A. Atal.—6. Asmoz. Abere.—7. H. Anaidia. A.—8. Horia.—9. Nor.—10. Betegarri.

Goitik behera: 1. Hala.—2. So. 1.—3. Fama. R.—4. H. Adore.—8. N. Hibaia. T.—9. Atea. E.—10. Ar. B.—11. Ilea. Sakona. R.—5. Mota. Zaina.—6. Guria. Gori.—7. Lodi.

HIEROGLYPHIKOA




Nolakoa da herriko agintaria?

EUSKAL SALDA

E	R	A	P	A	X	T	E	G	D
F	R	I	C	I	C	E	R	O	S
I	L	L	H	A	R	I	S	E	S
L	W	E	A	R	E	T	O	T	T
I	K	V	U	T	O	M	A	H	N
B	R	A	C	I	M	I	S	E	A
E	S	T	E	T	N	A	D	U	V
R	I	S	R	U	B	O	N	I	R
T	K	U	M	O	L	I	E	R	E
Y	I	R	A	T	L	A	W	Y	C

Goiko koadro horretan Europako 9 idazle famaturen izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu, goitik behera, behetik gora, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere. Behin topatuz gero, esango zenuke bakoitza nongoa zen?



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Alkate lasaia

EUSKAL SALDAREN ERANTZUNAK:

Cervantes (Espainia), Chaucer (Ingalaterra), Dante (Italia), Dostoyesky (Errusia), Etzapare (Euskal Herria), Goe-the (Alemania), Molière (Frantzia), Rustavelli (Georgia), Waltari (Suomi).

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABAGADUNE, coyuntura.
 ABANTAIL, ventaja.
 ADAR, cuerno, sirena.
 ADIN, edade.
 ADORE, kemen, valor.
 AGIAN, beharbada, nonbait.
 AGINDU, hitz eman.
 AGUDO, laster, arin.
 AHUL, makal.
 AILEGATZE, heltze, irixte, llegar, arri-
 ver.
 AISA, aise, errazki.
 AITZINAMENDU, aurreramendu, progre-
 so.
 AITZINDARI, aurrelari.
 ALA, o qué?
 ALABAINA, halabaina, en efecto.
 ALAZANKOA, halazankoa, halajaina,
 pardiez, pardi.
 ALBISTARI, reportero.
 ALDE, cantidad.
 ALDITXARTZE, marearse, s'évanouir.
 ALEGIA, hategia (hala + egia), a sa-
 ber, es decir, esto es.
 ANITZ, asko.
 ARABERA, arauera, según, conforme.
 ARAUERA, arabera, según, conforme.
 ARDURATZE, axolatzte.
 ARE, oraindik, aún, encore.
 AREAGOTU, oraindik gehiagotu (proble-
 magotu).
 ARIAN ARIAN, ariz ariz, poco a poco.
 ARMADA, harmada, ejército.
 ARRAS, guztiz, zeharo.
 ARRETA, atención.
 ARRUNT, común, corriente, ordinario.
 ASKE, libre.
 ASTINDU, sacudido, secoué.
 AURRERAPEN, aitzinapen, progreso.
 AURREZKI, ahorro, épargne.
 AUSART, valiente, intrépido.
 AZANTZ, hots, zarata, ruido.
 AZTERLARI, investigador.
 BA, bada, pues.
 BAHE, tamiz.
 BAILIREN, como si fuesen.
 BAITAN, -gan.
 BAITZPADAKO, beharrezko.
 BAKAN, bakanka, bakanki, rara vez.
 BANAKO, singular, individuo.
 BAPATEAN, bat batean, derrepente.
 BAPATEKO, bat bateko, repentino.
 BATZUK, zenbait. (Batzuek aktibo, ba-
 tzuk (pasibo)).
 BEDERA, bana.
 BEDEREN, behinik behin, gutienez.
 BEGIRUNE, respeto, miramiento.
 BEHIALA, behinola, en otro tiempo.
 BERRIKI, recientemente.
 BIARNO, Bearne.
 BIHOAZKIE, joan bekizkie (bekloez).
 BILAKA, devenir, volverse.
 BILAKABIDE, evolución.
 BIPIL, valiente, resuelto.
 BORDELE, Burdeos.
 BULEGO, oficina, bureau.
 DAGOENEN, dagoen orduko, para
 ahora.
 DAKIKE, daki nonbait.
 DAKIKEGU, dakigu nonbait.
 DAKIKEZUE, dakizue nonbait.
 DAKUSAGU, ikusten dugu.
 DAKUSATE, ikusten dute.
 DARAKUSKIOTE, erakusten diote (deu-
 tsoe).
 DARAMA, daroa.
 DATEKE, da nonbait.
 DATORKE, dator nonbait.
 DATZA, yace, está, consiste. (Etzan adi-
 tzaren forma).
 DEN BEZAINBATEAN, respecto a...
 DESJABEKUNTZA, expropiación.
 DESERRAN, desesan, desdecir.
 DEUS, ezer.
 DEXENTE, bastante.
 DITUZKE, ditu nonbait.
 DITUZKETE, dituzte nonbait.
 DOHAINIK, dohan, doharik, gratis.
 DUKE, du nonbait.
 DUKEGU, dugu nonbait.
 DUTEA, al dute?

EGIN, egindako, eginikako, eginiko.
 EI, omen.
 EKIN, dedicado, aplicado, entregado.
 (Aditz hau intransitiboa da, eta da-
 tiboia eskatzen du).
 ELAKATU, charlado, conversado.
 ELATZE, charlar, conversar.
 ENDELEGU, intelecto, inteligencia.
 ENTSEGU, entseiu, ensayo, experiencia.
 ERABATEKO, radical, completo.
 ERAGIPEN, influencia.
 ERAKUNDE, institución, organismo, en-
 tidad.
 EREDU, modelo.
 ERORTZE, jauste.
 ERRESUMA, reino, royaume. (ERREI-
 NU, reinado, règne).
 ERRU, culpa.
 ERRUDUN, hobendun, hobenduri.
 ESATERAKO, adibidez, por ejemplo.
 ESKUALDE, comarca, región.
 ESTAKURU, pretexto.
 ETORRI, etorritako, etorririkako, etorri-
 riko.
 ETSI ETSIAIAN, muy desesperanzado,
 muy desesperanzadamente.
 EZEN, ze, que.
 EZIK, salvo.
 EZKUTU, izkutu, oculto.
 FEREKATU, acariciado, caressé.
 FROGATU, probado, demostrado.
 FUNTS, fondo.
 GAITZESTE, condenar.
 GAUZABANAKO, singular cosa.
 GAUZATZE, obrar.
 GIBELETIK, atzetik.
 GIZABANAKO, singular persona.
 GORPUTZAK, azentuaz, el cuerpo; azen-
 turik gabe, los cuerpos.
 GREBA, huelga.
 GREBALARI, grebari, huelguista.
 GURINTXA, glándula, glande.
 HAIK, hareek. Halek (helek) aktibo,
 haik (hek) pasibo. (Ikus Lafitteren
 «Grammaire Basque», 82. horrial-
 dea).
 HALAJAINA, halajinkoa, halazankoa,
 pardiez, pardi.
 HANDI, agrandar. (HANDITU, agranda-
 do).
 HASERA, haste, hastapen.
 HASTAPEN, haste, hasera.
 HAU, honeek. (Hauk aktibo, hauk pa-
 sibo).
 HAUTEMAN, percibir, captar.
 HAUTEMATE, percibir, captar.
 HEDATZAIL, zabaltzaila.
 HEIN, punto, grado.
 HELBIDE, dirección.
 HERTSI, hetsi, hitxi; estricto.
 HERTZAIN, herrizain, policía.
 HESPARRU (hesi barru), recinto ac-
 tado.
 HOBE, mejorar. (HOBETU, mejorado).
 HODIXKA, hodi ttipi, canalito, tubito.
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo,
 horik pasibo).
 HOTS, a saber, es decir, esto es.
 HURA, ha.
 HURREN, ia, kasik.
 IGERIGARRITASUN, flotagarritasun.
 IKERTZE, azterte.
 INKESTA, encuesta.
 IRAGARRI, anunciado.
 IRAZKI, iragazki, filtro, colador, pas-
 soire.
 IRITXI, heldu.
 IRTEN, urten, atera, jalgi.
 ISEKA, trufa, burla.
 ITXARON, iguriki, igurika, esperar.
 ITXAROPIDE, esperantza.
 ITXAROTE, igurikatze.
 IXIRIMENDU, liserimendu, digestión.
 (Ixiritu behar dut, tengo que hacer
 la digestión. Axular).
 IZAN ERE, en efecto.
 IZANGO AHAL DUTE, ukanen ahal dute,
 ojalá tengan.
 IZKUTU, ezkutu, oculto.

JANTXE, casi comido.
 JANTZI, aditu.
 JASAN, sufrido, soportado.
 JASATE, soportar.
 JITE, indole.
 KASERNA, cuartel.
 KARKAILA, carcajada.
 KASU, por ejemplo.
 KIRIO, nervio.
 KONTSEILARIGAI, kontseilalgai, candi-
 dato a concejal.
 KOXKA, gako, kako, quid, busilis.
 KUI, conejillo de Indias.
 KUTSADURA, contaminación.
 LAGA, utz, dejar, laisser.
 LAGUNDU, ayudado. (Aditz honek aku-
 satibo eskatzen du).
 LARREGIKERIA, gehiegikeria.
 LARRI, handi.
 LEGEZ, lez, bezala.
 LEKUTU, alejado, echado lejos.
 LETRA, karta, eskutitz.
 MAIZ, sarri, sarritan.
 MENDEBALDE, mendebal alde, occiden-
 te, Oeste.
 MERKATALGO, comercio.
 MIRESTE, admirar.
 MOKOKA, disputa (lucha a picotazos).
 BURUKA, burruka, pelea (lucha a
 cabezazos). Euskara batuan burruka
 erabili behar genuke, eta ez bo-
 rroka.
 NABARI, evidente, notorio, patente.
 NABARDURA, matiz, nuance.
 OHOSTU, lapurtu, ebatsi.
 ONETS, aprobar.
 OREN, ordu.
 ORO, guzti.
 ORO HAR, oro harturik, en conjunto.

OROKOR, general.
 OROREN BURUAN, después de todo.
 OSTEGUN, eguen.
 OSTERA, ordea, aldiz, berriz.
 OTSAIL, febrero (mes de lobos).
 OTU, bururatu.
 PAIRATU, jasan, sufritu.
 PELLOKERIA, arruntkeria, perogrullada,
 piatitude.
 POSTA, correo.
 SEGERETU, sekretu.
 SORO, solo.
 TANKERA, estilo.
 TENSIO, tirandura.
 TELEBISTA (azentuaz), telebistea, la te-
 levisión.
 TIRANDURA, tensión.
 TRAZENDA, transcender. (TRAZENDA-
 TU, transcendido). Ene ustez, He-
 goaldeko idazleentzat euskara ba-
 tuak duen gauzarik, zailena, infini-
 tiboaren erabiltzea dateke.
 UDAL, municipio.
 UDALETXE, Herriko Etxe, casa consisto-
 riai, ayuntamiento.
 UGAZABA, jabe nagusi.
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).
 UNIBERTSITARI, unibertsital, universita-
 rio.
 URTARRIL, enero, janvier.
 URTATS, urte haste, primero de año.
 USNATZE, olfatear.
 XEDE, helburu, asmo.
 ZALU, ágil, flexible.
 ZARATÁ (azentuaz), zaratea, el ruido.
 ZARTARAZI, volado, hecho explotar.
 ZEHARO, guztiz, osoki.
 ZILEGI, haizu, licito.
 ZIZTA, ziztada, punzada.
 ZUZENETS, justificar, legítimar.
 ZUZPERTZE, reavivar.

HITZAK ETA ESALDIAK

Mikelau Ainerabelar idazlearen izenpean «Gure Herria» aldizkarian ageriak (*)

Gizonak bere kasernako* helbidea*-edo adreza eman zion Begoñari.

Apeza, ororen* buruan, gizonarekin oren* pare batez elakatu* zen. Ez zitzaion bakan* baizik norbaitekin gauza askoz elakatzeko estakuru-rik* gertatzen. Baina, nahitaez, eskolatua zen; eta kidekorik ez zitzaion gertatzen, gauza bereziez eta baitzepadakoze* elatzeko.*

Begoñak ez zien ostatuaren helbidea* eman etxekoei.

14, 15, 17 orenez egunean ari zen Begoña. Eta nolako lanean! Alkohola zerbitza eta zerbitza, beti alkohola, berriz ere alkohola, oraino ere alkohola, alkohola, alkohola...

Begoñak elizako ezkilak hautematen* zituen, baina baso azantz,* gi-zonen oihu, emagalduen karkailekin* batean.

Kanpoan haizeak begitarrea ferekatu* zion Begoñari; eta iduritu zi-tzaion, aspaldi handitan ez zuela nabaritu haizerik.

Lau neskatok letrak* postan* ezarri zituzten, eta ostatu baterat jo, kafeño bedera* hartzera.

Begoña burutik min zen, eta eztu! bakoitzean ziztaka* ari zitzaion burua, alditxartze* heinerakoan* hurren.*

Begoñari edari hura ekarri ziotelarik, besteek beren sandwitsak jan-txeak* zituzten.

(*) Behin baino gehiagotan, euskara batuaren amorearren eta irakurlearen faboretan, aldatu egiten ditut poxi bat hitz eta esaldiok.

Zarataren kutsadura (2)

Aurreko artikuluan, zarata benetako kutsadura* bezala hasi ginen kontsideratzen. Geure gizarteon geroago eta zarata gehiago eta gogorrago pairatu* behar dugu. Hori dela eta, oso komenigarri zaigu, zaratek pertsoneri egin diezazkieten kalteak aztertzea.

Gorak alde batera utzirik, ba dakigu, pertsona guztiek ez dutela sentsibilitate berdina, eta zarata mota guztiek ez dituztela ondorio berdinak sortezten. Zaratek gizoni egin diezazkiguten kalteak ikertzean,* ondoko puntu hauk* eduki behar ditugu kontutan.

1. **Adina.** Ez dute modu berean zarata jasaten* hurrek, gazteek eta zaharrek. Hurrei buruz, geroago mintzatuko gara; baina, oraingoz, zaraten kausaz asko sufritzen dutela esan behar dugu. Gazte eta zaharretaz esan dezagun, berrogei eta bost urte inguruko adina* oso kritikoa dela. Adin hori iragan eta gero, zaraten kausaz sortutako problemak konpondu ezinezkoak izaten dira maiz.* Zaharren kasuan gauza arrunta* da noizbehinka gorraldiak pairatzea, eta, kasu txarretan, bertirako gortasuna hartzea ere.

2. **Seksua.** Emakumeek sentsibilitate finagoa dute gizonen baino. Eta desberdintasun hau handituz doa urteekin.

3. **Zarata mota.** Zarata* monotonoa denean, arian* arian, gizonaren entzumena ohitu egiten da, eta kirioak* laxatu. Honela, askotan konturatu ere ez gara egiten, zarata hori dagoenik. Eta batzuetan, monotoniaren maila ttipia bada, logura ere eman diezaioke gizonari zarata horrek. Bestalde, zarata gogortoa eta bapatekoa* entzutean (kolpe batez sortutakoa, adibidez), gizonaren kirioak ikara eta tiranduratan* jartzen dira; eta zarata ikara horrek atsedena eta laxotasuna apurtzen ditu.

4. **Zaratak irauten duen denbora.** Zarata maila nahiko handia denean, haren irauteak kalte handia egin diezaioke gizonari. 85 dB-etik goragoko zarata mailan lan egiten duten langileen artean, gor geratzen direnen portzentua, beste langileen arteko portzentua baino askoz ere handiagoa izaten da.

ZARATEK EGITEN DITUZTEN KALTEAK

Beharbada, hemen aipatzen ez den beste kalteren bat ere etor daiteke zaraten kausaz; baina, gutienez, ondoko kalte zerrenda hau eman behar dugu.

1. Lehenik, gizonaren entzumenean gertatzen diren kalteak. Denok dakigu, zarata handiek tinpano mintza apur dezaketela indarraren indarrez. Ba dakigu ere (edo jakin behar genuke behintzat), gorraldiak, gortasun partziala eta gortasun osoa ere ekar dezaketela.

2. Psikologiaren aldetikako problemak ez dira besteak baino ttipiakoak. Lehen esan dugun legez,* zarata ikaretan kirioek tirandura handia pairatzen dute. Tentsio hau maiz gertatzen denean, gogo hersturak eta egonezinak sortzen dira, kasu batzuetan azkenez benetako neurosiak bihurtzen direnak.

3. Zarata ikaretan sortutako tentsioaren kausaz, gorputzerako beharrezko diren zenbait gurintxaren* funtzionamendua aldatu eta gutiagotu egiten da. Bereziki urdaileko gurintxek asko sufritzen dute. Ixirimendua* nekez egiten da, eta azkenik urdaileko heritasun handiak sor daitezke.

4. Zer esanik ere ez, zaratek sarritan eten egiten dute loa. Hala ere, honetaz zenbait gertaera bitxi aipatu behar da. Adibidez hau: Zarata handirekin lo egiten ohiturik dagoen jendeak, ez du sarritan lorik egin ahal izaten, zaratarik ez dagoen lekuetan.

5. Problema hau guztiok nabarmenago agertzen dira haurren baitan.* Ikerketek frogatu* dutenez, gehienetan, hau-

rek dituzten beldurren kausa nagusia, zarata izaten da. Gainera, aipatu dugun gurintxen problema areagotu* egiten da; eta honela, haurren gorputz hazkuntzarako behar diren hormonen produkzioa gutitu egiten da. Azken batez, zaraten erruz,* haurra ez da behar den moduan hazten.

Bestalde, zarata handia dagoen haurtegiak hurrek arreta* falta handia dutela frogatu dute estatistikek. Eta, estatistikak aipatzen hasiak garenez gero, esan dezagun ezen,* Estatu Batuetan eginikako estatistika batzuen arabera, zarata handiko haurtegiak haurren endelegu* maila, besteetakoena baino 22 % puntuz ttipiagoa dela.

6. Azkenik zerbait esan behar dugu, zaratek gizonen arteko harremanetan duten eragipenaz.* Honetaz denok jukegu* esperientziarik franko. Nor ez ote da inoiz haserretu, hauzo batek egin* zarategatik? Eta, haserrean, zer ez ote dugu esan (edo pentsatu)?

ANIMALIAK ETA LANDAREAK

Baina ez pentsa, mundu honetako bizidun bakarrak, pertsonak direnik. Animaliak eta landareak ere bizidunak dira, eta hauek ere pairatzen dituzte zaraten efektuak. Animalien gorputzak,* gizonaren antzekoa izanik (gauza askotan behintzat), gizonak pairatzen dituen efektuak pairatzen ditu. Horrela, kuiekin* egindako esperimentuetan ikusi izan da, haiek, 110 edo 120 dB-eko zarata artean egonez gero, bi edo hiru ordugarrenean konportamolde arraroak dituztela: kuiak burukatzen hasten dira elkarren kontra, zoroak bailiren.* Zenbait dantzatokitik ere horrelako zarata mailak neurtu izan dira. Ondorioak asmatu nahi dituenak, asma bitza.

SOINUAK KILIKAGARRI BEZALA

Puntu honetara heltzean, ohartu bat egin nahi nuke. Orain arte, zarata hitza soinu desplazergarria adierazteko erabili ukan* dugu. Hala ere, soinua goza- eta desiragarri gerta daiteke. Izatez, hauxe baino ez da musika: soinu atsegingarria.

Soinuak gisa egoki batez bildurik entzutean, sentsazio gozo bat senti daiteke; eta sentsazio horrek humorea hobea* dezake eta lan egiteko trebetasuna handi.* Zenbait lantegitako ugazabek,* horri oharturik, musika ezta jarri ukan dute beren lantegietan.

Nolabait ere abereak gizonaren antzekoak izanki, esperimentu berdina egin izan da abeltzari batzuetan. Musika klasikoa entzutean, behiek esne gehiago eta, gainera, hobea ematen dutela ikusi izan da. Eta jazz musika entzutean, ostera,* gauzak alderantziz gertatzen direla. Hala ere, ni ez nintzateke ausartuko, behiak musika kritikalarik onak direla esatera.

ZARATEI BURUZKO LEGEAK

Aurreko puntu guztiak irakurririk, zaraten kontra zerbait egin behar dela susmatzen da. Eta, asmo horrekin, mediku eta ekologoen eragipenez, zenbait lege egin dira.

Udaletxeak* dira (teorian behintzat), honetaz arduratzen diren erakundeak.* Teoriaren barnean mintzaturik, herriak hauzoka zatikatzen dira: bizitza hauzoka, lantegi hauzoka, merkatalgo* hauzoka, atsedena eta jostaleku hauzoka. Legetan muga batzuk* agertzen dira, hauzo bakoitzean permiti daitezkeen zarata mailak seinalatuz. Maila hau multzo bitan jar ditzakegu: egunerako seinalatzen diren mailak, eta gaurerako seinalatzen direnak. Gaurerako mailak ttipiakoak dira, noski.

Legeak hor daude. Betetzen edo bete erazten direnik, hori beste kontu bat da.

J. R. ETXEBARRIA